



Ybarra (-a)

etxebizitza

Aldakerak:
Ahozkoa: Ibérre

“... una casería titulada Ybarra, radicante en termino de la anteiglesia de Berriz, Cofradía de Andicono, es de dos viviendas, compuesta de sus cocinas, la una con un cuarto en piso bajo con sus cuadras y portalada, y la otra de piso alto con sus cuartos, camarotes y pajares... contienen su planta solar con inclusión de la tejabanana, horno y zaganuena en estados o tres áreas y cuarenta y dos centiareas...”
DJE 5/136 or. (1884)



43° 10' 40"

2° 35' 38"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Andikoa eta Eitua kofradien artean kokatzen den *Ibarra* baserriaren gaineko lehen aipuak XVIII. mende amaieran aurkitzen ditugu: *Ybarra* (1787, BAHP, A311/33) eta *Ybarra* (1796, Bizkaiko su-errola). Aldaketa gutxi jasaten dituen izen horietakoa dugu, dokumentazioan forma bera mantentzen baita XX. mendera arte, inoiz y grekoaz idatzi beharrean i latinoaz idatzita agertzen den arren: *Ybárra* (1859, BUA, Nmcr) eta *Ibarra* (1967, BUA, CE). Auzotarren artean, *Ibérre* da erabilitako forma.

Bizitza biko baserria da. XVII. mendean hedatu zen trazan jasotakoen antza badu ere, ez da bete-betean haien ereduari sartzen. Hiru gor-

putzez osatuta dago, baina ezkerrekoak etxearen erdia hartzen duen bitartean, beste erdia eskuma aldeko gorputza eta atartearentzat da, egurrezko dintelaren babesean dagoena. Erabilitako materiala harlangaitza da, harlandua kantil eta leiho ertz baterako izanik. Hau beheko solairuko eskuma aldekoa da eta buruan gurutzeta du. Ganbara aldean, oster, egurrezko egitura bistan da, gutxi bada ere, horma meheagoak bezala. Barruak argitzeko leihoak dauzka eta arte gainean, balkoi bakarra, zurezkoa. Isurialde biko teiltua du eta XVIII. mende amaieran eraikitako baserria izan daiteke.

toponimia

Euskal Herri osoan oso arrunta den etxe izen eta deitura dugu *Ibarra*. Hitzak bi adiera desberdin izan ditu euskaraz, haran hau da “valle” eta batzuetan izaera juridikoa ere izan du (*Orbaibar* erdaraz *Valdorba*) eta erreka edo ibai ondoko lur laua, erdaraz “vega”. Azken adiera horretan ohikoa izan da Bizkaia eta Araban erdaraz ere. Azken adiera honen adibidea Bilboko auzo izen bat dugu, *Abandoibarra*, antzinako *Abando* udalaren *ibarra* zena.